

GIPUZCUA-TARREN CONDAIRA ERROMA-TARREN DEMBORAN.

1

Ogeita Sei bat urte alde
 Jesus baño lenagotik,
 Etsai gogorrac etorri ziran
 Gure contra Erromatic:
 Bildur aundiric ustez etzuten
 Bada izango gugatik;
 Asmo gaistoac contrara ziran
 Egiñal egiñagatic,
 Euskaldunac bai garailariac
 Leen eta oraiñ eta beti.

2

Antistio-an eta Firmio
 An Marco Agriparekin,
 Octabiano buruzaria
 Ere an zuten berekin:
 Iru talderi etorri ziran
 Lau nagusi-tzar oyekin,
 Banidadea arren banderan
 Ongi zabalduarekin;
 Modu onetan sartu ziraden
 Ausardi gogorarekin.

3

Lenengo lana ateaç ichi
 Ichasoz eta leorrez;
 Bañan etziran luzaro egon
 Arpegi eman bildurrez.
 Loa gabeaariña eta
 Begiac allert egunez,
 Beala ziran balienteac
 Azi galdetzen lagunez;
 Aitaren seme irten ziraden
 Oraiñ leitutzen degunez.

4

Gogoan gorde leikeana da
 Seme orien esana;
 «Erromatarrac or datozkigu

»Peleatzera gugana;
 »Aldan guzia biribillatu
 »Bear degu alcargana
 »Bildurric-gabe sartu aurrera
 »Gogor etsayaren-gana
 »Bentzi dezagun indarrarekin
 »Onunza agertzen dana.»

5

Uste etzala samindu ziran
 Erromatar oyen farrac,
 Gipuzcoa-co mendi mutillac
 Ziradelaco ascarrac:
 Buru zariac ere etziran
 Orientzaco aiñ charrac,
 Oñac ariñac, gorputz lirañac,
 Gogor berriz atzaparrac,
 ¡Aimbeste milla gizon mendean
 Gure probinci bacarrac!

6

Asi ziraden etor berrian
 Erromatarrac gogorki;
 ¿Bost bat urtean zembat pelea
 Galdu zitusten norc daki?
 Alegin asco egin det baña
 Nic au ezin erabaki;
 Gerraren gura baziran ere
 Azpertz ziran ederki;
 Soldadu arro orgullosoac
 Jolastun egonagati.

7

Izu-icaran arkitzen zala
 Etsayaren talderia,
 Octabiano-c atera zuan
 Erritarretan berria
 Nolabait ere agertu naiez
 Bere guda galgarria,
 Batalla onradu bat egin eta

Batac besteri legia,
Alzan lenena bucatu zedin.
Cantabriaco pelia.

8

Euskaldunen agintariac
Ori enzutearekin:
Eranzun zion, «conforme gera
«Gu zure esanarekin:
»Iru-reun mutil escojituac
»Emen dauscat nic nerekin,
»Azken batalla naibadezute
»Onela egin gurekin,
»Buruz buruan etor-zaitetze
»Soldadu onenarekin.»

9

Bear-bezela cumplitu zuten
Beren itz onorezcua,
Señalaturic zegoan bada
Batallaraco lecu,
Gipuzcoa-ren onra andiraco
Zelay bat Errezillgua.
Makiñaren bat Erromatarrec
Bizia utzitacua;
Egun beretic da erri ori
Esan dan izenecua.

10

Ordu ta laurden iraun zuan
Gauza guchi gora-bera,
Eta batalla beti bezela
Mendi mutillen aldera;
Erromatarrac iya guztiyac
Erori ziran lurrera;
Octabiano-c icusirican
Bere gendeen galera,
Zer gertatzen zan laizter biraldu
Zuan Erroma aldera.

11

Albista ori juan da laister
An Erromaco errian
Senadu danac erantzun-zuan
Guziz colera aundian:

»Pelea irabazi dizute
»Chit errez beren errian;
»Guc ere ori egingo degu
»Nai bada geren lurrian
»Gizonez-gizon euskaldun oyec
»Etorri nai dutenean.»

12

Uste gabeco eranzuera
Arrokerizco orrekin
Euskal mutillac berotu ziran
Onra nai aundiarekin
Oyartzun-en zegoen eche bat
Lartaun-en izenarekin;
Ango galai bat giari berriz
Eun mendi-mutillekin;
Peleatzeco pozez juan ziran
Bada danac alcarrekin.

13

Erroma ondoco Tiber zeritzan
Ibai bat aren erdian
Zelai polita anche zegoan
Arras lecu ederrian;
Eñola-esiya zeucan egiña
Guziz arreta aundian
Berreun gizon peleatzeco
Ichitu orren erdian,
Igez lecuric iñora ezta,
Etsaya berriz aldian.

14

Erromatican irten ziraden
Batallaraco lurrera:
Cantabri-tarrac arrimatuaz
Ibai-aren baztarrera,
Beren gabarra zulatu eta
Bota zuten ondarrera:
Erromatarrac ecusten ceuden
Mendi-mutillen sarrera;
Salto ta brinco igaro ziran
Zelaichoaren gañera.

15

Erromatarrac albora ziran

Etorri galdetutzero,
 «Ea zergatic botatzen-zuten
 »Ontzi ura baztarrera;
 »Cantabi-tarren buruzariac
 »Eranzun zion ostera;
 »Lenengo lana oraiñ goazen
 »Zelayan peleatzera,
 »Eta ondoren zuen gabarran
 »An gera beste aldera.»

16

Noiz bait bearda bildu ziraden
 Peleara alcarrekin,
 Bi aldetaco buruzariac
 Eun bana gizonekin:
 Lizar makillac orduco armac
 Puntan burni zorrotzakin
 Biotzac zalto egingo zuten
 Ori icustearekin:
 Erroma-tarrak geyenac iltzen
 Lenengo golpearekin.

17

Ogei eta bat gizon ziraden
 Illac Cantabri-tarrari,
 Larogei eta geyago berriz
 Oyec Erromatarrari;
 Euskaldunac an irabaziric
 Batalla sonatu ori,
 Instante artan eldu zioten
 Etzayaren ontziari,
 Eta betico berendu zuten
 Transtiberico lur berri.

18

Erromatarren presidenteac
 Senaduco itzarekin
 Euscaldun aiei au ezan zien
 Frankeza guztiarekin;
 «Alcardadean bizi naidegu
 »Oraiñ aurrera zuekin,
 »Seme ordeco nai badezute
 »Izan ill arte gurekin,
 »Egingo degu geren alabac
 »Emazte emanarekin.»

19

Euscaldun ayec animaturic
 Guztiac baten itzera
 Erantzueran esan zioten
 Jaun prestu orri ostera;
 «Jarrico gera zuen alaba
 »Onen senar izatera
 »Pake gozoan gerta gaitenez.
 »Gu alcarrekin aurrera,
 »Anaitasun guziarekin
 »Erroman bizico gera.»

20

Bi erri oyec pake gozoan
 Orduti ziran gelditu:
 Zer gertatu zan orra nic esan
 Iñorc nai badu aditu.
Gipuzcoa-onac bere fueroac
 Oraindaño gorde ditu:
 Probinzi onac seme leyalac
 Oraindaño izan ditu
 Aurrera ere ala dezala
 Beti dan-arte segitu.

ON JUAN IGNACIO IZTUETA-ZANAC IZKRIBATUA.

